



PASAI DONIBANE ATEZ ATE:

HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIRAKO ETA EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2013

PROCESO DE INFORMACIÓN, FORMACIÓN Y APORTACIONES CON LA CIUDADANÍA, 2013

SAIOAREN AKTA **ACTA DE LA REUNIÓN**

BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

Bilera zenbakia/Número de reunión : 1.
Xede taldea/Grupo de trabajo : Euskarazko taldea
Data : 2013-IV-8

Lekua/Lugar: Zinema/Cine
Hasiera ordua/Hora de inicio: 19.00
Amaiera ordua/Hora de finalización: 20.30

DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN

Alkatea/Alcaldesa Amaia Agirregabiria
Teknikaria/Técnica Markel Azkargorta (Ingurumen teknikaria)
Froga fisikoa/Prueba física Oihane Oronoz eta Juanra Cano (zinegotziak)
Gonbidatua/Invitado Peio Egaña
Dinamizatzailea/Dinamizador Arkaitz Martinez de Albeniz
Parte hartzaile kopurua 67 (40 emakume eta 27 gizon)



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA/ BIENVENIDA Y PRESENTACIÓN

Alkateak bertaratutakoei ongi-etorria eman die, prozesuaren zioa eta helburuak aipatuz, eta udalaren aldetik mahaian dauden kideak eta aholkularitza aurkeztu ditu.

La Alcaldesa da la bienvenida a los y las asistentes, explicando la motivación de la reunión. Hace las presentaciones de los miembros de la mesa por parte del Ayuntamiento y de Aztiker.

2. PROZESUAREN ETA BILERAREN AURKEZPENA/ PRESENTACIÓN DEL PROCESO Y LA REUNIÓN

Aztikerreko dinamizatzaileak prozesuaren aurkezpena burutu du, helburuak, xede taldeak, bilerak eta metodologia azalduz. Era berean, gaurko saioaren aurkezpena eta eguneko bileraren helburuak, partaideak, egitura eta metodologia azaldu ditu.

El dinamizador de Aztiker realiza la presentación del proceso, explicando los objetivos, grupos de trabajo, reuniones y la metodología. Asimismo, presenta la reunión de hoy, citando los objetivos, participantes, estructura y metodología que se va a llevar a cabo.

3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/ INFORMACIÓN SOBRE LA APLICACIÓN DEL SISTEMA

Alkateak sistema ezartzeari buruzko erabakia eta argudioak kokatu ditu eta **teknikariak** sistema berriaren ezaugarri tekniko nagusiak (frakzioak, gaiak, bilketa egutegiak, zintzilikarioak, ordutegiak, hobekuntzak).

Ondoren, froga praktikoa egin dute Oihane Oronoz eta Juanra Cano **zinegotziek**. Bertan ikusi ahal izan da, gaur egungo hondakin bilketaren ondorioz eragiten den zakar-poltsa eta atez atekoarekin eragingo dena. Era berean, bilketa berria nola egin daitekeen aurkeztu du udalak.

La Alcaldesa explica la decisión y los argumentos por las que se aplica el nuevo sistema y el técnico se encarga de explicar las características técnicas principales (fracciones, temas, calendarios, colgadores, horarios, mejoras)

A continuación, las concejales Oihane Oronoz y Juanra Cano han realizado una demostración práctica. En la misma se ha observado la bolsa de basura que se genera con la actual recogida de residuos y la que se generará con el sistema puerta a puerta, y cómo propone el Ayuntamiento que se realice la recogida en casa con el nuevo sistema.

4. HERRITARREN ZALANTZAK ETA KEZKAK KOKATZEA ETA LANTZEA/ DUDAS, PREGUNTAS Y APORTACIONES DE LA CIUDADANÍA

Herritarren zalantzak eta kezkek jaso dira, txanda irekiaren bidez. Dinamizatzailleak hauek jaso eta hiru multzotan sailkatu dira: zalantzak eta kezkek batetik, ekarpenak eta proposamenak bestetik, eta iritziak beste batetik. Ondoren alkatea, zinegotziak, teknikariak eta gonbidatuak izan dute galderei erantzuteko tarteak. Jarraian, alkateak argitu ditu erabaki politikoari buruzko galderak eta teknikariak berriz ezarpen prozesuari buruzko zalantzak eta kezkek.

Jarraian aurkezten den taulan ikusi ahal dira jaso diren balorazio eta iritziak, zalantza edo kezkek eta egin diren ekarpena:

Se han recogido las dudas y preocupaciones de los y las asistentes, mediante una ronda abierta. La dinamizadora las ha clasificado en tres grupos: las dudas por una parte, las aportaciones y propuestas por otra, y finalmente las opiniones. A continuación, la alcaldesa, los y las concejales, los y las invitadas y la técnica han tenido opción de contestar a las preguntas.




A continuación se muestran las distintas valoraciones y opiniones, dudas y preocupaciones y las aportaciones que se han hecho:

BALORAZIOAK/IRITZIAK <i>VALORACIONES/OPINIONES</i>	ZALANTZAK/KEZKAK <i>DUDAS/PREOCUPACIONES</i>
<ul style="list-style-type: none"> - Udalaren urratsa atez atekoarekin zentzuzkoa eta garrantzitsua iruditzen zait - Kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu eta hausnartu zein aztarna utzi nahi dugun mundu honetan - Hondakinak hondakin gisa tratatu behar ditugu eta ez zabor gisa - Errauskailua da eztabaida honen funtsa, eta batzuek eztabaida honen erdigunetik desbideratu nahi dute errauskailuaren gaia - Ez birziklatzea ezin du eskubide bat izan - Sistema honekin lanpostu asko sortuko dira. Pasaiako udalak 3 langile kontratatzea aurreikusten du atez atekoaren ezarpenarekin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pardelekin zer eta nola egin behar da biltzeko? Pardelak eta konpresak egunero biltzeko aukera egongo da - Pilak, tonerrak, ... eta holako materiala nola bilduko da? Garbigunean jasoko dira, orain arte bezala - Olioia nola bilduko da? Orain arte bezala - Alde zaharreko atarietan nola egingo da bilketa, ze lokal erabiliko dira? Udalak proposamen bat egingo du eta komunitate/atari bakoitzaren esku egongo da lokal hauetan bilketa nola egin honetarako propio udalak sortuko duen fitxa baten bitartez. - Pinturarekin nola egin behar da bilketa? Material honetarako San Markoko kamioia hilabetean bitan pasatuko da. - Zergatik sortu da jubilatuen talde propio bat, zein da jubilatuen berezitasuna? Mota honetako prozesuen esperientziak erakusten duen moduan, jubilatuei zalantza gehiago sortzen diete aldaketek eta ulertzen dugu lanketa berezi bat behar dela jubilatuekin egin, honexegatik. Gerora sistema hobekien egiteko/betetzeko borondatea dutenak direla erakutsita dago ere, beste herrietako esperientziei erreparatuta. - Beira kontenedoreak mantenduko dira? Kaleko igluak mantenduko dira, komertzio/tabernetako kontenedoreak ez ordea. - Altzariak nola bilduko dira? Bigarren errondako saioetan honen inguruan eztabaidatu eta erabakitze aukera egongo da. - Kaleko papelerak mantenduko dira? Batzuk mantenduko dira, baina sailkapen berriari egokituta; hau da, frakzioka biltzeko aukera eskainita. - Hernaniko esperientziak zer erakuts diezaguke Alde Zaharreko bilketa sistemaren inguruan? Nola egiten da bertan? Alde Zaharrean badago eremu handi bat, bertako biztanleek bilketa bertan egin dezaten, ez dituzte zintzilikarioak atari parean. - Nola egin behar da autokonposta? Honen inguruko interesa duen herritarrentzat ikastaroak eskainiko dira propio, behin prozesu honekin bukatuta. - Bilketa ordutegia, egun bezala, betetzen ez duten pertsonekin zer gertatuko da? Honen inguruan 2.errondan eztabaidatuko da, nolako neurri zuzentzaile hartu behar diren deliberatzeko.

- **Jaiegun/egun berezietan bilketa berdin egingo da?**
Beste herrietan egutegia modifikatzeko aukera egon da eta Donibanen ere aukera hau aurreikusten dugu.
- **Tasaren igoera lanpostu gehiago sortuko direlako emango da?**
Ez da tasaren igoerarik aurreikusten. Bilketa gastuak altuagoak izango dira baina tratamendua merkeagoa, eta, gainera, birziklatzen dugunagatik diru-sarrera altuagoak izango ditugu. Egungo tasarekin egoera defizitarioan aurkezten gara eta helburua hori parekatzea da.
- **Beste distrituetan noizko aurreikusten da atez atekoaren ezarpena?**
Jarraian egingo da, Pasaia osora hedatzea atez atekoa da udalaren helburua. Donibane Pasaia osorako erakusleihu izango da.
- **Arraina nola bildu behar dugu?**
Arraina organikoa da, sukaldatua egon edo ez.
- **Arraina biltzeko papera usaintsua da, zer egin honekin?**
Paper batzuk errefusa dira zuzenean, eta beste batzuk papera eta plastikoa berezituta. Gai honekin, udalak (Oarsoaldeko beste udalerrri batzuekin batera) Tuper-aren erabileraren aldeko kanpaina abiatuko du, norabidea ahalik eta hondakin gutxiago sortzearen filosofiaren baitan.
- **Aspiradoraren hautsa non bota behar dugu?**
Hori errefusa da. Halere, sortzen diren zalantza guzti hauek argitu asmoz udalak gida bat banatuko du, alfabetikoki material bakoitza nola bildu behar den adieraziz.
- **Organikoa, zuzenean kuboan edo plastikozko poltsatxoarekin bota behar da?**
Hori bakoitzak aukeratuko du eta prozesu honetako 2. errondan erabakigai izango dugu. Halere, poltsa izatekotan, poltsa konpostagarria izan beharko du.
- **Organikoa etxean 3 egun jarraian izan behar dugu? Usairik ez al du sortzen?**
Kuboa irekita utzita usainik ez da sortzen, ondo aireztatuta dagoelako. Usaina hezetasunak sortzen du. Arraia, adibidez, paper zatitxo batean bilduta ez du usainik sortzen.
- **Egunkariak erabili daitezke adibidez arraia biltzeko papera gisa?**
Ez, tinta duelako; biltzeko tintarik gabekoak erabili behar dira.

EKARPENAK/PROPOSAMENAK
APORTACIONES/PROPUESTAS

5. BILERAREN BALORAZIOA/ VALORACIÓN DE LA REUNIÓN

	Bilerako giroa <i>Ambiente de la sesión</i>	Erabilitako metodologia <i>Modo de trabajo</i>	Landutako edukia <i>Contenidos creados</i>
	XXXXXXXXXXXXXX Ona Oso lasaia	XXXXXXXXXXXXXX	XXXXXXXXXXXXXX
	x		
			

Bilera bukatutzat eman da Pasai-Donibanen, 2013ko apirilaren 8an, arratsaldeko 20.30tan.
La reunión se da por finalizada a las 20.30 del 8 de abril 2013 en Pasai-Donibane.

HURRENGO HITZORDUAK/PRÓXIMAS CITAS:

DATA: apirilaren 18 eta 19 (Kaxkoa eta Meipi)/ 18 y 19 de abril (Casco y Meipi)
LEKUA: Zinema/Cines
ORDUA: 19.00



Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!
¡Muchas gracias a todas por vuestra aportación!